


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

275n. zenbakia
uztailla-dagonilla 2002



EIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



EGILEOR eta EGIRAUN'dar Jon (Euskerazaleak Alkartearen Idazkaria) (G.B.)

Bilbao'n il da 2002-06-8. egunean.

Bere alde illetea Indautxu'ko Josulagunen Ikastetxean egin zan, illearen 10n.egunean.

Gure eriotz-miña agertzen dautsegu etxeakoai eta Euskerazaleak Alkarteko guztiai.

Gure Jon nor eta zelakoa izan zan agertzeko, ona emen lekuko bi: Lekaiame klaratar bat: "Gutzat santu bat izan da".

Illetan izandako bat: "Gure eguneroko bizitzan santuakaz artuemonak izaten doguz nortzuk diran jakin barik. Orreitariko bat izan da Jon".

MARTA TXORI - II (1865-1946)

Asko izan dira Bakion Marta Txoriren ganeko informazioa non batu dogun itaundu deuskuenak. Egia esan, Sabin Uriartek egindako ikerketa eta erritarrak (Martina Uriarte, Juan Abio) esandakoetatik batu godu daukagun guztia. Zeuon etxeetan (Bakion) be egongo da nonor a ezagutu dauana, seguru baietz! Berori dozu onena aren barri jakiteko. Marta Txoriren ganeko informazioa geiago euki dogu eta, alan bada, oraingoan be, aren beste zati bat ekarri gura izan dogu ona, lerrootara.

Unekada baten Marta Txoriren aita-amak eta lau umeak Txorietxen (*Txorietze*) bizi ziran, errentadore. Ori dala eta, batzuen ustez, Txorietxen bizi izan zalako. Marta Txori ezizena esaten el eutsoen.

Prezetoriara (*Prestetóridxe*) batuten ziran erriko beartsuak, ezeukiak. Marta Txori aretariko ezeuki bat izan zan ezkerroan, berak be Prezetorian eukan bizilekua. Erretratuak pintetan jezan eta etxean aukiten jezan eskegita, eta nozonoz, erriko umeai erakusten eutsezan. Esan genduan lez, kandelak be egiten jezan, gero errian saldu edo emoteko. Eleizan argimutil bat eukiten ei jen berarentzako bakarrik, berak egindako kandleagaz eta guzti.

Jateko eta edatekoak erritarrak emonda ataraten ei jen bizimodua aurrera, esaterako, Uribera (*Uribe*) joaten zan sarritan esnetan, esnea batu eta kantetan asten ei zan Uribeko maastipean.

Marta Txori oso eleizatsua izan ei zan. Albo errietako santu buztietara joaten zan, oinez: Busturira, Bermeora, Jatabera, Larraurira, Meñakara, ... santuen aldeko mezak entzuten.

Beinola baten, San Eufemia egunean, mezea entzuten joan zan Bermeora. Manuko bidean joiala, da! kirikolatza topau jen bidean. Sasoi atan boltsarik erabilten ez zan ezkerroan, kirikolatza koiu eta aldean eroian aterkin andian sartu jen. Alan bada, Bermeora eldu eta eleizara sartu zan. Eleizan egoala, aterkina ondoan jela, ez zan igarten an barruan kirikolatzik egoanik. Baina komuninoa artuten joankeran, aterkina bakarrik itzti jen eta aterkina mobiduten asi zan. An inguruan egozan bermeotarrak ori ikusikeran, ikaratuta, aterkin aren barruan sorginak edo zer ete

egoan asi ziran esaten, danak ikara baten. An barruan, baina, kirikolatza besterik ez zan egon.

Beste bein baten be, gerrea etorri zanean, milizia-noak, tankeak-eta Landabarrenan beea etorri ziran Bakiora. Berak orreek guztiorrek ikusikeran, "*ene bada, gerrie da-ta, gerrie da-ta!*" asi zan orroaka esaten. Ez jen jakingo gerrea zer zan, txarra zana bai, ostera. Joan zan, bada, Goikoleako mune ganera. Orduan a garbi, sari barik, egoten zan. Mune ganera igan, arriak artu eta lantzean soldaduren batzuk etortzen ziranean, areei arrika egiten eutsen.

Soldaduak, eraso zala-eta, fusilak artu eta ara gora, munera, batu ziran "*Ene bada, zer koixu dogu emen?*" Marta Txori gizajea.

Iniaki Martiartu

+ + + +

BERBALAPIKOA

(Bb: Bakoko berbea)

itaundu = galdetu, preguntau.

ikerketa = azterlan, inbestigazino.

argimutil = kandelero. **(Bb)**

Prezetoria (*Prestetóridxe*) = Etxe-Pinto ondoan egoan, gaur eguneko aparkalekuan.

aterkin = gordesol.

jen (*dxen*) = eban. **(Bb)**

jezan (*dxesan*) = ebazan. **(Bb)**

igan (*idxen*) = igon. **(Bb)**

eraso = atake.

IRUÑA'KO GOIGOTZAI JAUNARI

BEARREZKOA ZAION ERASPENEZ BETI

(Idatz-lan au iruña'ko "Diario de Navarra"n agertu da. orregatik, Naparroa'ko euskeraz dago)

On Fernando: Nere kontzientziaren barrunbea nai dizut iriki. Gaur, Jorraillak 11 dugu. Badira egun batzuk -8? 9? 10?— euskerari-buruz eta Euskalerriaren eskubideei-buruz itz larriak entzun nizkizula. "P.P." Alderdiko gaztediari ari zifien itzegiten, eta orrek astunago biurtzen zuen an esaten zenuena. Min eman zidan, eta baita zure zaintzapeko kristau askori, kristaurik onenei, bearbada.

"Euskera ez dagoela Naparroa'n zigortua"; Euskalerriak moralaren aldetik, autodeterminaziorako eskubiderik ez duela". "Askatsunerako eskubidea koloni menperatuentzako dela, eta Euskalerrria ez dagoela menperatua". Ori ez da egia, eta atzipeturik zabiltz, On Fernando.

Berealaxe artu nuen, gure egunerokoetako batean zuri erantzuteko asmoa. Erderaz, zure mintzaldia ere erderaz izen zen ezkerero, eta egun guztiotan nolabait zure itz ber-berak aurkitu naiean ibilli nauzu.

Nik aztertutako egunerokoek ordea, ez dituzte argitaratu. Elizgizon baten agotik atereak izateko, gogorre-giak iduritu ote zaizkie? Nik, nere aldetik, jarraituko dut zure itz aien billa, ez bait daukat utzia erderazko idazlantxo ura idazteko asmoa.

Bitartean euskeraz idatziko dizut, zure itz aiek geiena mindu zuten napa-kristau-sorta euskalduna bait da, ezpairik gabe.

Beste bein-edo-bein idatzi izen dizut, politika ukitzen duzun une orotan Madrid'ko Jaurlaritzaren alde zebillelako itxura ematen bait duzu. Oraingoan aspaldiko gertakizun baten bidez erantzungo dizut.

Diktaduraren garaia zan. España 'n lenengo lan-uzte edo "uelga" piztu berria genuen. Ni berriz, Elizbarrutiaren Lanbide-Ikastetxeko zuzendari nintzan. Jaurlari Zibillarekin asarreak izan nituen, langile-dia lan-uzte artara atera zutenak, "nere" ikastetxe artan "nere" ikasle izendakoek izen ornen zirelako.

Ez ninduen orrek geiegi arritu. Geiago arritu ninduen, eta samindu, nere gotzaia ere Jaurlari Zibillaren alde agertu izeteak.

Andik egun batzuetara Zarautz'en nengoen, eta an bizi zen On Mateo Mujika zaarra, Iruña'ko eta Bitori'ko gotzaia izena ikustatzera joan nintzen. Nere Gotzaiarekin gertatu-berri zitaitenaz, arekin solacean

ari nintzalarik, "On Mateo —esan nion—, ez dirudi, orain bidali dizkiguten iru gotzai auek gotzaiak direnik ere. Bai bait dirudi, oietako bakoitza, Madrid'ko Jaurlari-tzak bere asmoak Euskalerrrian sendotzeko, bidali digun Jaurlari Zibillen antzeko zerbait dela.

Jakiña ba, mutiko, —erantzun zidan—, jakiña ori dela! Eta "electus inter millia" —ots, milla-artean aukeratua—, ortarako".

Itz larriak noski, On Mateo izen zen bezala, egiaren alde jokatzeko, agintarienganako bildurraren ttanttrik gabeko gizon baten ezpañetan: eta orregatik ainzuzen, Errepublikak aurrena eta Franko'k gero, atzerrira erbesteratutako gotzai bikain baten ezpañetan.

Barkatu, On Fernando. Bein baño geiagotan esan dizudan bezala, banuen oraiñ arte ere alako bildurtxo bat, baiñan emendik aurrera zail izengo zait zu ere...

(Barkatu berriro, On Fernando: nakarren izketa emen moztu ta nere gurasoetaz mintza nai dizut: napa-rrak biak: aita, Joxeprantxixko, beteluarra; eta, ama, Benitte, arribetarra. Lenen maillako kristauak biak. Miñ aundia artuko zuten, zuk "PP"ko gaztediari esana entzun ba'lute. "Gizon ori burutik ote dago"? esanen zuen amak; eta aitak..., aitak ez zuen deus esango, bere asarrea adierazteko itz egokirik ez bait zuen aurkituko"l

Banator atzera, On Fernando, nakarren izketara: Esaten nintzun bezala, oraiñ arte zalantzarik aski izen dut. Baña emendik aurrera oso zail izengo zait, zu ere gaurregungo Naparroa'rako eta Naparroa onen arazoe-tarako, "electus inter millia" aietako bat ez ote zeran pentsatu gabe bizitzea.

Agur, On Fernando. Ez uste etsai nauzunik. Neri, eta batez ere zure eliztarrik zintzoenei, nere aita ta ama bezalako eliztarrei, miñ eman diezulako idatzi dizut. Ta otoi dagiet nere bi guraso oiei, zure itzek duten garrantziaz, itzegiten asi aurretik, ongi jabetu zaitezen, Jainkoagandiko grazia lortu dezaizuten.

A!, eta laister arte On Fernando. Zuk PP-ko gaztediari esan zenizkien itz berak eskuratzen ditutanean, idatziko bait dizut berriro, zure agotik irten ziren itz aiek, egiazkoak zergatik ez diren agertuz.

Latiegi'tar Bixente

BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

ORDUAK

Orduak euskeraz esakeran, gure erriak norabide gitxi izan dau eta gaur be ez daukagu ziurtasun larregirik. Goazen esaldietara, beti lez.

"Ordu batak eta laurenak dira" esaten dogu eta orretan jarraitu bearke dogu, baiña ez litzake burubide obakoa izango "ordu bat eta lauren da"?

"Ordu batak lauren gitxiago esaten dogu". Zergaitik ez "ordu bata"?

"Ordu bat eta erdiak dira". Obeto "erdia da".

Esaldi orreik ez da zertan gasteleratu, baiña itzulte au egin ezkerre gauza bitxiak agertzen dira: "Son las una y los cuartos". "Son las una menos cuarto". "Son la una y medias".

Ez dakit zergaitik sortu diran esaldi oker orreik, bear ba'da erderazko pentsaera nastau dalako edo ordu bat danean be asko diraneko bide beratara sartu gura doguzelako. Baiña arazoa or daukagu eta ez dot uste zuzenduko danik. Ain da gatxa erriko oiturak zuzentzea!

ALKAR

Bizkaian eta Gipuzkoan eta aldakuntza txiki bategaz erabilten dan berba bat "alkar" edo "elkar" da. Eta eskualde bietan berba onek adierazpen bi ditu: "Alkartu" edo leku batera etorri. Esaterako "gaur

emen alkartu gara bakezaleak" eta "senar-emazteak alkar maite dabe". Adierazpen bi oneik argi dagoz eta egokiak dira. Iñoz entzun dogu ondo izango litzakela euskera batuaren bidean "elkar" batak besteari adierazteko erabiltea eta "alkar" toki batera batzeko. Baiña ez dot uste bide ori artu-bearrekoa danik.

Beste oartxu bat itz oneik argitzeko: "Alkar" batak besteari adierazteko erabilten danean, izten ete dau gramatikeak ori adierazteko aditza aldatzea? Esaterako "Anaiak alkar maite dira" esateko, "maite dira" esatea, edo ondo dago "Kepa ta ni maite gara" "Kepak eta nik alkar mate dogu esateko?

Ezetz uste dot, "alkar maite dogu" esan bear dala eta ez "alkar maite gara" edo "maite gara".

Onetan Mikel Zaratek sendo aldezen eban eritxiari nagokio, naizta beste eritxi askoten batera egon ez adiskide aundia zan onegaz".

Olazar'tar Martin'ek



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 18,03 €(3.000 pezeta). Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

SENDIAK EUSKEREA GALDU EBAN

Onelan kontatuten eustan adiskide batek:

Aita ta ama euskaldunak ziran. Aita gipuzkoarra, Arantzazu inguruetakoa; ama bizkaitarra.

Ezkonduta gero Bilbora etorri ziran. Etxean beti euskerea erabilten eben. Orregaitik anai nagusiak txit ondo ikasi eban. Eskolara jua zala ez ekien tutik erderaz. Maistra etorri jakun eta amari zirautson ia zergaitik ez eutson semeari erdereera erakatsi, eskolan aznenengo lekuan ipiñi bear izan eban da. Amak erantzun eutson: "Erdereera?, bai ikasiko dau".

Arreba zaaragoak be euskeraz egiten eben. Ni seme gazteena naz.

Baña Bilbao'n bizi izateaz, gurasoak ara ta obeto ziarduen erderaz. Etxean be erderaz egiten asi ziran. Onelan neuk erdereera ta euskerea nastatutak ikasi nebazan. Gero joaten giñan Errioxako erri batera udea igaroteko. An, kalean beti erderaz egiten.

Anai nagusia eukerazko liburuetan asi zan. Orregaitik oso ondo ezagutu ta gorde eban gure berbakuntza. Ostantzean nik, Bilbao'n be beti erderaz egiten, nekian euskera gutxia aaztu dot.

Sendi euskaldunak eredu onetik atara bear dabe esangurea. Bere etxetan erderari sartzea eragotzi bear dautsoe. Ez dirautset au erderari gorrotogaitik. Erdereera maite-maite dot. Erderaz irakatsi eustan amak eta. Baña sendi euskaldunetan erdereera sartuten bada, euskerea galduko da. Erremediorik gabe galduko da. Naiz eta ikastoletan irakatsi, lanpostua lortzeko bear ta abar.

Zer jazoten da gaur? Iñoiz baño euskerea ezagunago da. Baña erri euskaldunetako kaleetan iñoiz baño gutxiago entzuten da. Jakin, jende askok daki, baño ez dau erabilten. Orregaitik oker andi-andia egin dabe batua indarrez sartu gura izan dauskunak. Ez Bizkaian bakarrik, Gipuzkoan bere, ereduak ezaguten dodaz nolatan euskerazko sendiko firua eten dan Aitite-amama edo guraso euskaldunak etxean erdereera erabilli bear dabe, Ikastoletan batua mutil-neskai irakasten dautseen euskerea ez dabe ulertuten eta.

Ibañez Karlos



Egileor eta Egiraun' dar Jon jauna

(Goian bego)

lleta
BIAR,
 astelena, 10
 Arratsaldeko
 7,30etan
INDAUTXUko
 Jesuiten
 Ikastetxearen
 Eleizan
 (Areitza
 Doktore kalea,
 32 Zbk-Bilbo)

Bilbon II zan 2002eko ekainaren 8an, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa artu ondoren
 Bere anaia, Iñaki (†); arreba, Miren Josebe; eskon-arreba, Laskibar' tar Bitore (†); lobak, Egileor' tar Maiteeder eta Enrique González Moure, Egileor' tar Itziar eta Imanol San José; billobak, San José eta Egileor' tar Ane, Jon eta Maialen; lengusu-lengusiñak eta beste sendiak

(Funeraria Bilbaina, S.A. Tf. 94 424 10 65. Grupo Funeskadi)

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

AGINDUAREN ORDEA

Latxaga'k, Euskerazaintza'ren batzar baten: 36'ko gudaldian suizkillatutako idazle gazteakaitik zeozer egin bear gendula, bestela aitzuta geratuko dirala ain-beste zor dautsegunak esan eban.

Batez be Euskalerrriak beti jakin bear dau bere seme/alabak beragaitik len zer egin eben eta gaur zelan dabizen, bai nolako alegiñak egiten dabezan Erri guztien artean Euskalerrria izar aundi bat lez agertu daiten.

Eta orretarako jakin bear dogu nortzuk ziran, zelako lana egin eben eta zelan alegindu ziran euren "Lur amari" "Euskadi maitia'ri" ezkeintzeko euki ebezan gorputz gazte eta ederretatik azkeneko odol tantaraarte, euren bizitzak iraun dagian Jangoikoak naikoa dala esan arte!


Lanak banandu ziranean, nire ardurapean geratu ziranak Sabino Arana kultur-elkartea ta, Santxo Jakintsua'ren iraspenak Elorrio ta ingurutako erriak, Elgeta azkenerako itzita, ikerlari lana izan ziran.

Elgeta'ra joateko, Latxaga'k esanda, Peña'tar Lorentzo'ri laguntza eskatu neutson, eta onek eguna ta ordua ipinteko esan eustan.

Ni aurretik joan nintzan Elgetako alkar-ikustea osotzeko, eta alan batu giñan, ezkerretik asita argazki onetan agiri garenak:

- 1.a- Peñaeta Etxebarria'tar Lorentzo.
- 2.a- Elkoro ta Arrizabalaga'tar M.^a Angeles (Udaletxeko idazkaria).
- 3.a- Telleria eta Lamarain'tar Antoni (13 urtegaz laidotua izan zana).
- 4.a- Garai eta Aranzeta'tar Bitor (izkillatua izan zan Joxe Bizente'ren semia, eta oroi-arria ren egi-lla).
- 5.a- Iturrikastillo eta Azkazibar'tar Antonio (izkillatua izan zan Iturrikastillo eta Aranzabal'tar Jorje abadea'ren illoba).
- 6.a- Atutxa'tar Paul (argazkilaria).





Ikerkuntzaren lanak amaituta, Lorentzo 'ri esan neutsen, danak entzun dagien: "liburuaren amaieran osterara be etorriko giñala, eta euren" ia egia izaten dan" erantzunagaz agurtu giñan.

Gaur, 2002'an Loraila'ren 21' an goizeko 11'etan, gure arteko gogoetan berbea sinismen aundikoa dalako, danak osterara be batu gara Elgetan, liburuak Udal liburutegian eta euren artean banatzeko.

Osterara be joan gara oroi-arri aundia dauan lekura argazkiak atarateko, baiña oraingoan liburuakaz.

Argazki onetan M.^a Anjeles ez da agertzen, lanpetuta egon zalako, eta betiko lez ni, argazkari'ren lanak egin dodazelako.

Danak poztu giñan, eta ostean Antoniok, beste oroi-arri bat ikusi bear gendula esan eban, eta ara joan giñan.

Ikusiaz batera eta DEIA'n zeozer irakurri nebalako, gogoratu jatan: "Ez da izango Beldarrain Komandanteak ipinitako oroi-arria ez?"

— Bai! bera da, esan eban Antonio'k.

Antonio'k: ikusten dozuen lez..., apurtuta dago. Guk barriztu egin gura dogu, baiña gaiñean dagozan idatziak ez dira ulertzen eta guk ez dakigu ziur zer ipin-

ten eban. Bekoak bai, eta erderaz idatzita dagoz gaiñera: "aquí se detuvo al invasor" eta gertakizun aren eguna. Ba goikoa ziur dala berori Euskaraz idatzita, guztiak ulertu dagien.

Argazki pare bat atara gendun oroi-arriaren egoera baragarri orregaz baten batek edo arduradunak diranai

jakin dagien berrezkuratzeko, bertan gertatutako eginkizunak alan eskatzen daualako, eta ez aaztu: "Euskalerrria'ren askatasunagaitik bertan il ziran Euskal semeak gogoratzeko!".



Beste oroi-arri bat be ikustera eroan ginduezan Antonio'k eta Bitor'ek, au Aranzeta eta Egizabal' tar Xabier'en oroimenekoa izan zan.

Badago bai!, euskalerrrian zegaz gogoatu eta arduratu Euskalerrria'ren bizitza gazteai berrezkuratzeko bizi-bizi beti egon daitezkan, eta ardura orregaz apurbat geiago maitatu daigun.

**Atutxa'tar Paul
Zornotzan 2002'an Loraila'ren 21'an**

ALDATZE BIDEAN

Gaur egun, goseak il ez gaizan ez eze, obeto bizi gaitezan lagunduko deuskun bear beste diru irabazteko egiten dogu bear. Ori dala eta, bearginen erosotasun zein poztasuna garrantzi andiko baldintzak dira prebentzinoari jagokonez.

Azken urteotan, makinak *zein* bearlekuak babesteko aibat baliabide ezarri dira, arriskuak identifikatu, neurtu zein eurak ezabatuteko metodoak, prebentzino arloa ondo eratzeko arauak... Alan eta guzti be, neurri guzti orreek ezarri dabezan baltzuetan ezbearrak egon, oraindikarren, egoten dira. Zergaitik?

Baltzuak eratzerakoan, dalako enpresa-kulturaren barruan, prentsakera aldetzerik edo prebentzino kulturarik ez da kontuan artuten izan. Aor egon gara oker be oker. Aor ekin bear izango dogu gogor, bearginen bearrizan eta jokabide nagusiak aldatuten, bearlekuko segurtasunari jagokonez.

Baltzuko beargin guztiok ondo argi euki bear dogu, bearlekuan ezbearrik ez egotea saria emoteko bestekoa ez dana. Bestetara baino, orrek egunerokoa izan bear dau, oidalakoa, gauzak ondo egin gura doguzalako. Ori lortuteko guretariko baktxaren, danon, ardurea zein konpromisoa bearrezkoak dira.

Gure baltzuan lan-prebentzinoa osoa izan daiten, arlo guztietara eldu daiten gura izan ezkerroan, betebear orretan bear-bearrezkoa da danon eskuartzea. Gure egitekoen ganean ausnartu bear izango dogu eta onartu egin, jokabidea aldatu bear izango doguna. Alkatze bidé orrek guretariko baktxaren barrenetik urten bear izango dau, besteakan era-

....

'BEEGANEA MOGITZEN ASI ZAN"

Apurtxu bat arrotz joten dau neure belarrietan aurreko esakune orrek. Nire eritxi apalean, mobidu, beea mobidu leiteke eta egungo be ez beaeren ganea. Izan be, Bizkaiko Uriben, batez be, beste euskaldun batzuentzako lurra berbea dana geuretzako beea (bié, beié) berbea da. Andixik sortuko ziran, seguru antzean, esaterako, beaeren ganea (loitu, busti, ...), beaeren ganera (jausi, bota, ...), beaeren ganetik (koiu, altzau, ...) beaeren ganean (imini, jesarri, ziloa egin, ...) esakerak, oneek guztiok apur bat abstraktuak badira izan, dalako beaeren gane orreri ezin leitekio-lako ukutu. Ikusi be, ez da egiten. Ikusi ez dan azala balitz legez, atan be. Eta ikustezina dan azal orretatik beerantz beea dogu, solidoa. Alan, bada, beea (laprastatu egon, nar egin, ziloz beteta egon, egoera txarrean egon, gogorra izan, ...) berbea erabilten dogu. Ukutu egin leitekio eta ikusi egin leiteke.

Beea mobiduten asi ezkerro, lurra izanda, gure alderdian, beak nar egin dauala esango geunke. Nar edo narra egin lurrak egiten dau eta. Mobidu aditza baino egokiago dalakoa daukat nik aurrekoa.

Alandaze, gorengo esakunea, beste era batera esanda: beea nar egiten asi zan, askoz be egokiagoztat joko neuke nik, joan dan apirileko 23ko Euskaldunon Egunkariko BIZKAIA geigarrian agertutako gorengo ori baino.

gina euki aal izateko. Elburu ori lortuteko uste ona eta aldeko borondatea erakutsi bear izango doguz.

Jakina! Aldatze ori ez da erreza izango. Bidé ori ibilten asten garanean, an sortuko diran arazoak gogoia galdu eragin leikigue, kritika zorrotzak zein erasoak edo porrotak eragin leikigiez, baina guretariko baktxarengan dago elburuok lortuteko atzerarik ez egitea.

Gure elburua zer au da: gure baltzua etenbako eboluzioan egon, eskabide eta aldakuntzen aurrean arinu eta arlo guztietan lotu barik ikasten ibiliko dan baltzua izatea.

"Gaztaroan nire irudimenak ez eukan mugarik. Mundua aldatzea neban amets. Baina urteak etorri urteak joan, zaartu eta ikasi egin dot. Ori neuk bakarrik lortu ezin izango neban konturatu nintzan. Orduan, amets ori apaldu egin neban eta gure errialdea aldatuten aalegindu nintzan. Baina, ori be ezina zala emoten eban.

Zaartzaroan, eta itxaropena galduta, azkenengo aalegina egin neban. Gure ingurunea, lagunak eta familia baino ez nintzan aldatuten aalegindu. Baina areek be ez euken euren burua aldatuteko bape gogorik.

Orain, il aurretxean, beingoan ulertu dot: neure burua baino ez banintz aldatuten aalegindu izan, bearbada, jarraibidetzat artuta, neure lagunak eta familiak be euren burua aldatuko eukeen.

Euren bultzada eta adorea eraginda, gure errialdea aldatuteko gauza izan neuntekean, Baleiteke! Eta batek daki, baita mundua aldatuteko be. Beharbada!

ATZERA BEGIRA



Bitori Uriagerekak itzita.

Berton agertu deusugun argazia 1948tik 1949ra artekoa izan leiteke. Aor dozeuz, bada, orduko Bakioko San Pelaioko neskatilak, gero! Leenago neskatila asko San Pelaiion, orain, osterá, gitxi. Bakioko aretzan dagoz argazkikoak, Arimune aurre-aurrean edo. Irakaslea eta guzti. Irakaslea on-ona izan eizan. Benta zaarrean euken eskolea eta ara joaten ziran San Pelaioko neska-mutilik geienak. baina mutilak mutilakaz eta neskak neskakaz, badakizue...

Goitik beera eta ezkerretatik eskoatara oneexek doguz:

1. errenkadan:

Miren Landaluze (azeretxogoitia) - Isabel Imatz (Gisasti - Gisisti) - Josefina Bentura (Gorteta - Gortene) - Marga Bentura (Gorteta - Gortene) - Bitori Uriagereka (Luzarraga goikoa - Bastei) - Lukene Legarreta (Urizarreta).

2. errenkadan:

Josefina Benguria (orbietá) - Maria Eugenia Barturen (Gazadi - Ibillaurre) - Itziar Uriarte (Ureta) - Mari Karmen Benguria (Orbietá) - Maria Abalos (irakaslea, Basauri) - Begoña Elortegi (Urgitxi) - Luisa Uriagereka (Luzarraga goikoa - Bastei)

Iniaki Martiartu

LEGE ZARRAK KENTZEN (1839-1876)

ETA 6: KENTZEA BERA (1875-1877)

Karlostarren III guda amaitu zanean, lege zarra kentzeko bideak zabalik egozan, baiña liberalak ziranak beainbat egozan legezarren alde.

XII Alfonso erregeak itzaldi gogoangarri bat izan eban Naparroako Peraltan eta auxe esan eban: "Izkilluak emon ezker, foruak jarraitu leike".

Dana dala, gudaren ondoren, kalte aundiak egin jakezan karlostarri, esaterako ondasunak baitu eta uztak erre. Karlistik euren erregeagaz Areatza-Villaron egin eben batzarra (1973-08-06).

Aldundiak (liberalak, ez foruen bidez aukeratuak, baiña eurak foruen alde), laterri-legeagaz bat egiteko aldakuntzak eginda Gasteiz'en batu ziran guda amaitutzat emoteko eta Alfonso'ren alde egindako alegiñak agertzeko, oneri foruen alde egiteko eskatuz.

España guztiko izparringiak gogor itz egiten eben foruen aurka, baiña Bizkaian foruen alde egitea galazota egoan.

Bitartean Canovas'ek argi agertu eban: Karlostarrak guda amaitu eta izkilluak emoten ez ba'ebazan, foruak kendu egingo zirala eta baldintza orreik beteten ba'ebazan, Bergara'ko ituna beteko zala (foruak bai baiña laterri-legera egokituta).

Guda amaitu zan, libaralak irabazi ebeleako. Erregea eta gudalburuak Frantziara joan ziran.

Erregeak (Alfonso XII) Somorrostro'n au esan eutsen euskaldunai: "Zuek sendo jokatu dozuelako, España'ko batasuna lortu da laterri-legearen barruan urrengo gizaldi eta gizadietarako".

Canovas'ek barriri: Ez dira lege zarrak kenduko, liberal asko curen alde dagozelako, ez karlistakaitik. Oneik kontuan izanik bereala kenduko litzakez. Ez ebezan zigortu nai liberal zintzoak karlista etoiakaz batera.

Bizkai'ko Batzarrak batu ziran XII Alfonso erregea onartzeko, aldunak ori ezin leikeelako. Orrelan lege zarrak Laterri-Legera sartzeko bidea artuko zan. Orain bizien dagozen arazoak soldaduska ta zergak ziran.

Ona emen 1976'ko korteetara aurkeztuko zan legea:

1 a.– 1839'tik gaur arte ezin izan dira alkartu foruak eta laterri-legea.

2n.– Soldaduskaren arazoa: Beste españatarrakaz bardingindu.

3n.– Zergak Españatarrak lez ordaindu, baiña modu berezi bat.

4n.– Erregearen alde ekin dabenak soldaduskatik aske.

5n.– Gudan lagundu daben erriak zergetatik aske, baiña ez 12 urte baiño geiago.

6n.– Gobernuak foruetan aldatu bear dana aldatuko dau, baiña Euskalerriko probintziakaz berba eginda.

7n.– Lege au beteteko almen guztia emoten jako gobernuari.

LEGEGAIA SENATUAN: (1876-06-03)

Gipuzkoako Agirre Miramon izan zan alde itz egin ebana. Itzaldia luzca ta ederra, argia ta sendoa. Bergarako itunetik asi zan aurka jokatzeko Sanchez Silva, baiña Agirre Miramon'en erantzuna ondo etorri zan. Ona emen gogoratu eban edesti-jazoera bat: 1867n. urtean Paris'en Erakusketa Nagusi bat egin zan eta asko goratu ebezan Euskalerriko Legeen ondorena diran oiturak. Ori dala-ta izan zan Anton Truebak bialdu eban txostena. Onek laterri askori emon eutsen zer pentsau.

Azkenean Senatuak legea dagoan lez onartu eban.

LEGEGAIA KONGRESO EDO BE-KAMARA. (1876-07-07)

Iru euskaldun izan ziran izlariak: Moraza. Billabaso eta Bikuña.

An entzuten ebena beti zan bat: Españatar guztiak bardiñak izan bear dabela, danean. Iru oneik, ostera, au esaten eben: Bai, bardiñak izatea galerazten daben gauzak kenduta, baiña foruan diran beste gauzak kendu barik. Orretan Bergara'ko ituna beteten dala.

Lege-Batzar edo Kongreso onek be egoan moduan artu eban ontzat legea, euskaldunai ezelako jaramonik egin barik, eta orrelan bidea aske geratzen zan lege-zarrak zeero kentzeko. Orduan kendu ziran Eskualdeetako batzarrak eta euskaldunen eskubide berezi guztiak, orduan lurperatu zan euskaldunen euskaltasuna.

Or agertzen dira olerkarien negarrak (Arrese Betia ta Kepa Enbeita, esaterako) eta or agertzen da Arana ta Goiri tar Sabin'en pentsabide barria. Ortik dator 1936n.gudako jokabidea ta triskantzak eta ortik gaur daukagun demokrazi-antzeko onetan euskaldun abertzaleak daukagun jokabidea: Gure eskubide bereziak lurperatu nai izan dabez, gure euskaltasuna kendu nai izan dabe, baiña erria or dago gaur be tente.

Olazar'tar Martin'ek

Oarra: Lege onartu-barri au XII Alfonso erregeak izenpetu eban 1876-07-02 egunean eta 23n. egunean agertu zan Gazetan edo orduko B.O.E.'n. Euskalerraren edestian aldi barri bat asi zan.

36'KO GUDALDIAN SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTEAK

EUSKERAZAINTZAREN ASMOA

Ba-dira urte betzuk **EUSKERAAINTZA**, **EUSKEREAREN** **ERRI-AKADEMIA**'n erabagi bat artu genduala: 36'ko gudan erail ebezan idazle gazteak plazara-tzea.

Galtzaite aundia izan zan guda zital arek Euskalerrriari eta euskereari ekarri eutsona. Orre-lan izaten da olako matxinada ikaragarri guztietan: Indarrez nagusi urtetan diranak lenengo zapaltzen dabena jakintza izaten da eta jakintza arloan beti izaten dira idazleak aurrean erabilliak eta eraillak. Orre-lan izan zan gure Euskalerrrian be.

Artu genduan lan au zabala ta sakona zan eta orregaitik astitsu artu gendun, baiña azkenean burutu dogu eta ona emen liburu ederra 256 orrialde ondo beteak dituana eta ainbeste argazkiz apaindua, bai agirien argazkiak eta bai notiñenak.

Billaketa-lana egiteko Artea 'n bere agiritegia dauan Sabino Arana Alkartera eta Gasteiz 'en agiri eta liburuz ain aberatsa dan "Sancho el Sabio"ra jo dogu, batez be. Eskerrik beroena erakunde oneitan aurkitu doguzan langille laguntzailleai.

GIROA AGERTZEN

Latxaga lankidearen itzaurrea da lenengo datorren idazkia eta urrengo, "belaunaldi zigortua" idazpuru dala, Lendakari izandako Jose Antonio Ardantza 'k egi-ten dau aurkezpena.

Irugarren idazkia, giroa ezagutzeko oso egokia, gure idazkari izan genduan Kortajarena'tar Andoni'rena da.

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

Lauaxeta - Lurgorri - Josu Peña (Aitza)



Gudaritzara joan bear izan eben gazteen arazoak argitzen dauz.

Elozegi ta Amundarain'dar Alberto'k, beste idaz-lan labur baten bere liburu bat eskintzen dausku, "Galindez" gai dala aldi aretako giroa obeto agertzeko.

Arrinda 'tar Anes 'ek, giroa agertzeko elburu beragaz, edes-tirako galdu bear ez dan beste jazokizun bat gogoratzen dausku.. Ondarreta'n fusilatuai buruz, izkilludun batek diñoana gogoratzen dau: "11 onetan bi milla suizkillatu doguz" eta ori ezelako garrantzi barik esan eban: "gaur euritsu dago" esan ba'leu tez.

Eta giro au osotzeko, eriotzarako epaia gaiñean eukan baten eskutitza dator: Urionabarre-naetxebarria'tar Iose Antonio'rena.

Atutxa'tar Paul'ek "Sabino Arana" eta "Sancho el Sabio"n aurkitutako agiriak dakaz urrengo: Gazteiz'ko Eleizbarrutian eraildako lekaidelekaimeak eta aurrean erabillitako abadeen barriak "Cahiers de documentation Basque"tik.

Giro onetan agertzen jaku, gizon zintzo ta zuzen lez, Manuel de Irujo, Latxaga'k aurkeztua.

Orduko idazleen giroa agertzeko egokia da Arzelluz 'tar Amale 'ren lana. Guda garai aretan 20 urteko idazle gazte ziran guztien izenak agertzen dauz agiri onek.

Gudaldian eraildako idazleak gogoan izan doguzan ala aitzuta daukaguzan aztertzen dau Atutxa'k, egin jakezan omenaldiak eta aipamenak azalduz.

11n.atalean jazarpenari ekiten jako, lenengo Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n erail ebezanak gogoratuz, gero Naparroa 'ko errietakoak banan-banan. Zenbat eta geiago billatu geiago aurkitzen da sarrazki au gogoratzeko.

Millak eta millak izan ziran olako jazokizun negargarriak, baiña billaketa-lan onetan kasu bat argitaratzen da zeatzago, Elgeta'koa, negargarria benetan, Atutxa'k egindako billaketa-lanean bear dan itzaltasunaz ageritzen dan lez.

Ain zeatz ezin agertu izan arren, garrantzi aundikoa dalako, Aitzol'en eriotza gogoratzen dausku Anes Arrinda'k.

Giro larria agertzeko, ezin alboratu orduko espe-txeetan agertzen dan giroa. Sabino Arana Elkartean dagozan esku-idazkiak aztertu dauz lan au idazten dauanak: Nortzuk idazleak, zein izkuntzatan, zenbat idazki dagozan, zelako aldian idazten daben, nortzuk diran eta nortzui idazten dautseen, zelako orriak daukezan idazteko ta abar. Idazkien argazkiak ugari dirala, batez be Lauaxeta'ren azken-idazkien argazkiak agiri dira or. Bere azken-nai edo testamentua eta berak egindako marrazki batzuk be bai.

Aldi larri aretan ez dagoz aitzuta emakumeak. Onei buruz egiten dau idaz-lan bat ondo ezaguna dogun M^a Karmen Garmendia'k.

Azken-mezu oneik zelan gure eskuetara eldu diran agertzeko da urrengo idaz-lana, Mitxelena'tar Manuel'ek idatzia.

Urrengo idazlanean, lan au idazten dagoanak ageritzen dau Guda arek zelako ikutua izan eba gure elerti edo literaturan.

Olako jazokizun negargariak eta beste alde batetik txalogarriak gogoratzen doguzanean, gudaldian ildakoak santutzat artzen dirala aspaldion ikusiaz, Santuak nortzuk eta zergaitik diran aztertzen dau, lan onen idazleak.

"Goiz-Argi" aldizkaritik artutako beste lan bat dator urrengo: Guda orretan zenbat gudari, nongoak eta noiz il ziran. Gero, su-izkillatuak gogoratzen dauz barriro.

LURGORRI

Giroa al danik ondoen agertu-ondoren, eredu lez, iru idazle agertzen dauz liburu eder onek: Lurgorri, Lauaxeta eta Josu Peña (Aitza).

Lurgorri'ren barriak bere loba batek idatzitako agiritik artzen dauz Sancho el Sabio'tik, Atutxa'k. Jakin-garriak dira gure gizaundi onen bizitzea eta eriotzea!

Urrengo gure Atutxa'k, billaketa-lanari jarraituz, Lurgorri'ren idazlanak aitatzen dauz eta non eta noiz agertu ziran diñosku.

Lurgorri'ren eskutitz batzuk datoz gero, argazkiz aterata.

JOSU PEÑA (AITZA)

Latxaga gure lankidea oso trebea da apur bat esku-tatuta geratu diran idazleak argitara ateraten. Oneitari-ko bat dogu Aitza (Josu Peña). Aretxabaleta bere errian ezaguna izan da beti, naizta urteen joanak gauzak aiz-tutera bultzatu. Orain Latxaga'k argitara atera dau idazle gazte, on eta ugari au, orretarako Aitzaren seni-deak laguntzaille dauzala. Auxe da liburuaren azken-atala, sakona eta luzeena.

Lenengo, lan naikoa luze bat dakar L. Peña'k eta J. Atxa'k izenpetua, aldi aretan Aretxabaletan zan giroa agertzeko. Eta Antxia'tar Aitor'en idazlan baten Aretxabaleta obeto ezagutzeko lagundu ondoren, gure Latxaga sartzen jaku oso-osoan, lenengo ta bein, eritxi arin bat alboratuz: Eguneroko jazoerai buruz idazten daualako, ez uste izan batzuk diñoenez, garratzi gitxiko idazlea danik. Eritxi arin ori alboratu egin bear da, idazle aundi eta jator baten asieran gagozelako. Lau maillatan ezarten dauz Latxaga'k Aitza'ren idaz-lanak, eta gero zorrotz aztertzen dauz beste gai batzuk esaterako izenen zerrendak zergaitik eta zelan egiñak diran Aitza'ren idazkietan. Urrengo, idazlea aurkezteko argazki eder batzuk datoz eta gero urrats oneik idaz-lanetara sartzeko: Nor dogu idazle gazte au? Josu Peña ta "Basarri", Joxe Iñazio Salaberria olerkaria'ren goralpena eta Idaz-lanen zerrenda aldizkari oneitatik artuta: "Gure mutillak", "Euzkadi", "Argia" eta "Eguna".

Idazle txalogarri oneri buruz gaia amaitzeko eta irakurleen pozerako aldizkari orreitan agertutako idaz-lan guztiak datoz, urregorik urregora.


LIBURUAREN AZKENA

Liburu eder au amaitzeko J. Atxa'ren idazki-ostea dator eta gero Latxaga'ren atzezkoa. Eta azkenengo aurkibidea baiño lenago, beste gauza eder bat, eroapen aundiaz egindako lan bat: Liburuan agertzen diran izen guztien zerrendea. 25 orrialde dituan izenen aurkibide au laguntza aundia izango da irakurleentzat.

Artu, irakurle, gure liburu eder au eta irakurri.

Olazar'tar Martin'ek

ADINEKO'EN BIDAI BAT



Olanda'a ibilaldiak onelako'ak dira: "Erri zarrak eta barriak ikusi. Adiskide barriak egur. Alsedena ta poza.

Bidai ona eta ezkertzekoa BIZKAÏKO ALDUNDIA'K beste erriak ezagutzeko emoten dautsen aukera ta laguntza gure antzera adiñekoak diranai.

1'go ezeren bereizte barik eginda dagozelako eta 2'gn gizartean ezbardintasunari aukera aundi bat emoten dautsoelako nortasun arloan obeto konpondu gaitezcan lotsagizun andiaz danon izaeraren ardurak zainduta, osterora orretan ondo baiño obeto ikusten dana.

Bidai onen izaera Lourdes'en osabeagandik ezagutu gendun, baita zelan egin bear gendun eskaerea.

Dana dala, non agertu zan gure izen-abizenak sari-tuak izan dirala, badai ori txangolari edo ikusketari egiteko, itsasoaren goi-mallako neurrian baiño beragoan dagozan erriai, Olanda batez be, bere lurak zati aundi baten beintzat itsasoaren neurritik 4'm. beragoan dagozalako.

Orrela, Loraila'ren 9'an goizeko zortzi ta erdietan Donostikoa zan berebil-bus batera igon gendun Paris'era joateko.

Berebil-bus orren gidaria Euskalduna izan zan, Jon bere izena eta gidari ona, jatorra eta txantxetarako zaletasun aundikoa.

Gure taldearen gidari-zuzentzaille Juan izan zan Balentziarra bera eta ondo baiño obeto jakin eban zelan jokatu bear eban gulako talde baten.

Egun oneik adiskidetasunean iraun dagien, talde ortan norberak jakin ez arren arroak, jakintsuak aurkari, susmurtzu (rumorosos), espatsu (celosos), ixterbegi (envidiosos), griñagabe (indiferente) suar edo arduratsu agertu arren.

Bidai onetan, nor-bera edo bikoteak beti alegintzen gara edo dira inguruko errikoakaz eta olan alkartu giñen



Argentina tik etorritako "GEARLE" ta emaztea izan genduan bide lagun.

Martinez'tar Karlos eta beren emazte Ruiz'tar Agelines, Santurtzikoak direnak; Angulo'tar Maria Isabel eta beren senarra Mari Juan'tar Klemente, Deuston bizi diranak; Longarte'tar Lander eta beren emazte Fernandez'tar Marina be Deustokoak; eta Barroeta'tar Lourdes ta ni "argazkilaria" Zornotzakoak.

Elkarte polita egin gendun danak benetakoak agertu giñelako alde batetik eta iñungo zalantza gabekoak bestetik, beste guztiak be, or inguru baten agertuaz.

Bilbo'tik Paris'era oso bide luzea da berebil-bus baten egiteko, baiña Juan'en azalpenagaitik, ordu-birik ordu-bira geratu bear izatea, eta gure artean ezagun barriak izateagaitik, bidai ori ondo baiño obeto eroateko gauza da.

Bazkaldu Burdeos'en egin gendun eta apaldu Paris'en. Goizeko gosaria artu gendun eta Brujas'era joan giñen, lenago "Bryggia" deitu zana; erri-txiki eta batua da, beren erdi-aroan edo erdimendeetan oso izkutuzko erria izan bear zana, eta merkataritzaren portu-ospetsua zana. Oso polita da.

Bazkaldu bertan egin gendun eta DANTE'ra joan giñan.

Ango gauza politenak ikusi eta BRUSELAS'era zuzendu genuen bidea.

Emen, goizeko gosaria artu eta erria ikustera joan giñanean, Juan gidariari esan neutson: beren azalpenak "kaizar-jaunak eta errege ziran gizon/emakumeak aundiak ziran lez agertzen ebazala, iñoz plater bat apurtu bakoak izan ba-ziran lez". Bai ondare politak eta ederrak guretzat itzi dabezala esaten dozu.

Beren erantzuna: "oneik gauzak diralako politenak geratzen jakuzanen artean, ez ba?".

– Baiña azalpen oneik beste gauza batzuk ere eskatzen dabez!: nun ostutako diruagaz eginda dagozan, erritarren arteko egoaldiak nolakoak ziran eta abar asko.

– Eta ori?

– Edestiaren azalpen argitsua, erri-gizaren edesti zeatza izan bear leukelako, bestela erdi-aroan beti egongo gara kokatuta txarto egiñeko gauzak ez ba-dira azaltzen. Errege ta morroitasunaren bizitza agertu daiten, eta batez be jakiteko zelako zorigaiztotan bizi ziran erritarrak. Edesti orregaz menperatzaille kaizar-jaunak onak ziralakoan azalpen zabalkuntza egiten dozulako, orduko globa-

lizazioak onartuaz, eta gaurko batzangoa edo globalizazioa naazte baten sartu ona dalakoan meperatzaille zikin bat danean.

—Juan izildu zan eta erantzun barik geratu gintzazan.

—Egia esanda, alkar-izketa onen itaun ta erantzunak itz bigaz amaitu ziran, berak ondo baiño obeto ulertu ebalako, nik esan neutsonen: azalpen oneik "gizabidezko edestian" izan bear zirala gaztelu onein edertasunak azalduta. Orregaitik berak ez eban itaun geiago egin eta nik zirikatatu be ez.

—Baiña ortik aurrera, gure artean edo EUSKADIN bizi garanen artean politikako gora-berak diran lez gure gogoaren leenengo gauzak ardurazko gogapenetan, banaka banaka asi iatezan ondora etorten eta leenen sozialismoan sartuta dagoan bat. Gizon onek ulertze eban gizon/emakumeen bai-ta sendiaren nortasuna, baiña ez eban ulertzen aberrien nortasunak nundik agertzen ziran, berezitasun-gabeko jaurkintza-menperatzailleak ontzat artzen ebalako, eta batez be Espainola. Azkenean lortu neban berak aitutea nortasuna berezia dala gogai (concepto) guztietan eta aberriak oituragaz eta izkuntzagaz batzangotu egiten dirala, ez batek edo talde baten esanagaitik, gutxiago indarragaz galazota.

Basauri'ko andra-gizon eskonduak be urbildu jatazan, oneik ondo ulertzen eben Euskalerraren arazoa, baiña izkuntzaren arloa ikutu gendunean, andra onek esperantaoagaz esan eban eta or euki nebazan berarekin goraberak aituazo arte: asieratik etorkizunean millak urtetik onantza egiten dan izkuntza dala ederrena eta orregaitik bere izaeran jakitun geien ta garbia daukone dala Euskeragandik asita, emakume/gizonen buruak argi eta anak zentzun aundiz eta ondo kokatuta lur gaiñean eukiteko.

RH'gaitik be itandu neutson eta beren erantzuna: Arzallus'en gauzak dira orreik. Orduan esan neutson, ia Arzallus'ek odol mota ori eukinda bere babesean joango bazan jakinda, berea danontzat balio dauana eta berentzako odol mota ori baiño ez balio dauana, ain gitxi egonda gaiñera. Asi nintzan azaltzen antropologiako ikerketatik datozela jakituri oneik eta Hitler'en antzeko menperatzailleak ibiltzen dabezala bakarrik itz orreik elburu zikin onekaz, gaur Espanol menperatzaille dabizenen antzera, egia naastuteko.

Ez zan bera bakarrik, gure maian iñork ez ebalako jakin zergaitik zan Euskaldunen babes ori.

Bruselas'en egun guztia bete gendun, bazkal ostean Lobaina goi maillan-ikasteko erria ikustera.

Belgika atzean itzita Holandara sartu giñan, Rotterdam-Delf-Bolendam eta La Haya ikusteko. Bolendam'en kokatu giñan, andik Amsterdam'era joateko. An, lasaita-

sun aundiz ibili giñan erri guztia ikusten, errekararik be ibili gintzazan ontzi eder batean eta bai "Barrio Rojo" deritxon kaleetatik be.

Goizeko gosaria Bolendam'en eginda Marken eta Haarlem'era joan giñan gero ostera be apaltzen eta lo egiten Bolendam'era joateko.

Holanda'ko Bolendam'etik ostera Belgika'ko Ambreres'era joan giñan. An Gotzai-Eleziz nagusia eta erria ikusi eta bazkaldu egin gendun, arrastian Paris'era joateko. Eta bertan, arratsaldeko azken orduetan urten gendun Paris argitsua ikustera.

Etxera itzultzeko eguna eldu jakun, eta goizetik jagita bai gosaria artuta be Paris'tik urten gendun goizeko zortzirak ziranen Poitiers'en bazkaltzeko, baiña Juan'eri gogoratu jakon denbora euki geunkala eta Loira'ko gaztelu ederrak ikustera eroan ginduzan.

Bidai zoragarria izan da eta ondo baiño obeto danon arteko giza-bidea beteta. Argazki asko leku guztietan artu genduzan etxean gogoratzeko. Eta janariakin geien Bolendam'eko apariak, mota askoko barazkiakaz eta ondo apainduak be izan ziralako, nai gazta asko erabilli, ondo dakie guza ona zer dan janariak gertutzeko. Beste janari guztien artean, ni oilasko eta lur-sagar edo patata prejituakaz gogoratuko naz denbora luzean.

Beste gauza bategaz be konturatu nintzan: Espainolak zelan egiten daben euren edakunde edo zabalkunde eza-gunak izan daitezcan, nai-ta eurak ondo baiño obeto jakin. Euren gauzak liburututa eta ondo apainduta argazkiakaz Gaztelera salgai ipintzen dabezalako.

Euskalerrriak ezin leike olango gauza edo antzeko bat egin, guri itaun egiten dauskunean "nungoak garan", Euskaldunak garala erantzun egiterakoan jakin dagian nor-tzuk garan?

Oarpen asko artu nebazan zoragarritzko bidai onetan, eta argi ikusi dotena, zabalkuntzan lan geiago egin bear dogula Europako erritarrak zalantza barik jakin dagien, Euskalerrria Europako erri zaarrena izatez gain bizi-bizirik dagoela orain be.

Gure Nortasuna beteten daben zertzeladen jakiñak, edo zertzelada oneik zergaitik direzan olan, Euskal gorpuan jakin arloan be, ikusi dogu ez dirala osasun aundi-koak, eta orrek esan gura dauana, gure ardurazko alegi-ñak, beste goi-maillako zillo baten estutu bear doguzala: "GURE EUSKALERRI MAITE ONEN ASKATASUNA LORTU GURA BA-DOGU".

Atutxa'tar Paul

ZORNOTZA'N 2002'AN LORAILLA'REN 21'AN

BIZKAIKO EUSKEREAA ZUZENTZEN

ZELAN/NOLA

Gipuzkoera osotua gura dabe batzuk batutzat, eta Azkuek orretarako urrats batzuk be emon ebazan, esaterako "Ardi galdua" elebarria, baiña ez dot uste baturik bear danik, batua ikastea baiña obea da bizkaitarrak gipuzkoera eta alderantziz ikastea eta idazkietan naiz irakaskintzarako esku-liburuetan bata naiz beste erabilli.

Egia esan ba-dagoz itz batzuk alkar osotzen dabenak eta euskalki bietan zabaldu bearrekoak.

Gipuzkoan "nola" erabilten dabe itauntzeko eta ez "zelan", eta Bizkaian, ostera, "zelan" erabilten da beti eta ez iñoz "nola".

Emen bai errez ikusten dala konponbide bat. Gipuzkoan esan begie "nolakoa" notin bat danean: "Nolako gizona da ori?" baiña gauza bat danean erabilli begie "zelako". Au ez dabe iñoz erabilten: "Zelako etxea erosi dozu? eta ez "nolako", esaten daben lez.

Eta Bizkaian alderantziz: "Nolako gizona da ori" eta ez "zelakoa" gaur esaten daben lez eta "zelako etxea erosi dozu?" gaur esaten daben lez. Orrelan euskalki biak aberastuko litzakez. Baiña ba-dakit olako aldakuntzak, naizta txikiak izan, errian sartzea gatxa dana, eta ez erreza idazleen artean.

"Zer", "Zelako" gauzak dira, "Nor", "nolako", norkiak dira.

GIZONAK/GIZONEK

Aspaldion zalantza aundia daukagu bizkaierazko idaleak "nork" aditzaren askorena erabilkeran. Len ez egoan zalantzarik baiña aspaldion batuaren eta giputz batzuren indarrez badagoz.

"Nork" askorenean, edo "nortzuk" itaunari erantzuteko Bizkaian era bi izan doguz: Bata notiña zeaztubakoa danean, eta orduan alboan daroa izen-lagun zeaztzailea: "Bost gizonak egin dabe ori" edo "iñongo gizonak ez leuke egingo ori", baiña gure Bizkaian iñoz ez da entzun "gizonak egin dabe ori", beti "gizonak egin dabe". Bizkaian ba, =ek ez da erabilten izan zeaztugabeen baiña.

Aldatu egin bear dala? Nik ez daukat eragozpen aundirik, baiña ez gogo bizirik be, lengoan ondo gagozela uste dot. Oraingoz arazoa aske itziko neuke eta bakoitxak idatzi dagiala nai dauan eran.

NONGOA/NORENA

Gazteleareak itz-aurrekoak edo preposiziñoak ugari erabilten dauz, baiña sarritan gitxi zeaztuta. Euskerea bere atzizkietan askoz zeaztagoa da. Esaterako, gazteleareak "de" gaz esaten dauana esateko euskereak atzizki asko artzen dauz: "De oro/urrezko", "venir de casa/etxetik etorri", "ser de casa/etxekoa izan", "murió de viejo/zarrez il zan", "Villa de Bilbao/Bilbao uria", "uno de vosotros/Zuetariko bat"...

Gaur "Villa de Bilbao" esaldia eta euskeratzea aztertu-ko dogu.

Gazteleazko "de" ori ez da besterik ondoko itza edo aposiziñoa agertzeko bide bat baiña. Berez "Villa Bilbao" izan bear leuke eta euskeraz orrelan erabilli bear dala uste dot: "Bilbao uria". Ez Bilbaoko.

Baiña ori "uria" itzak eta "Bilbao" itzak zabalera bardiña daukanean izaten da, baiña ez zabalera bardiña ez daukanean. Esaterako "diócesis de Bilbao" "Bilbaoko eleizbarrutia" esan bear da, eleizbarrutia Bilbao bakarrak ez dalako, Bilbaokoa da baiña "Bizkaia eleizbarrutia". Uria, ostera ez da Bilbao'koa, Bilbao bera baiña.

-Ko onek euskerara badauz beste oker batzuk be: "Karteruko jatetxea" ez, "karteruarena" izan bear leuke. "Andra Mariko eleizea" "Andra Mariarena".

Beste batzutan zalantzazko gauzea izaten da: "Irailaren 12'an" ala irailleko 12'an?

Ona emen arazo au argitzeko bide bat. -ko ala -ren artu ez dakizunean, itaun au egizu: "Noren/zeren" ala "nongo". Berez artuko dozu erantzuna: "Karteruko jatetxea? "nongoa" da ala "norena". "Norena". Orduan "karteruarena". Nongo eleizea ala norena? Orduan, Andra Maria'rena. Nongo eguna ala noren/zeren eguna? Orduan irailarena.

LEMONA/LEMOA

Ba-dakit toiki izenak egokiro ezarteko lan aundia egi-ten diarduala Euskaltzaindiak, baiña ez nator batera jokabide batzukaz. Esaterako "Bilbo" esan eta idatzi bear ei dogu eta ez "Bizbao". Ondoren lez or ikusten doguz izen bi. Bilbo/Bilbao bideetan, bata erderaz eta beste eskeraz balitzakez lez.

Izena "Bilbao" izan da eta da, baiña abostegi-arazoa-gaitik, esan Bilbo esten da, baiña nik beste au be esango neuke: Azentoa edo sakakadea "i"ren gaiñean ipiñi ezkerro errez ulertzen dala aldakuntza: "Ni gaur Bilbaora noa". Ez dago "Bilbo" idatzi bearrik.

Baiña naste aundiagoa sortzen da Euskaltzaindiak dauan eta esaten ez dan "-n-" kentzen danean. Or bardin jazoten da: "Otxandio, Lemoa, Fruiz, Laukiz, Bedaroa, Lemoiz..." ei da euskeraz eta "Otxandiano, Lemoa, Fru-niz, Laukiniz, Bedarona, Lemoniz..." ez ei da idatzi bear, antza dagoenez erderazko izenak diralako. Nondik erabagi ori? "Geur" esan arren, "gaur" idazten dogu edo "emontzut" esan arren "emon dautzut" idazten dogu. Dana, aboskeriak alboratzeko. Ba, "n" ori be aboskeria edo fonetismoa baiña ez da eta ez daigun kendu.

Eta "-n-" arloan gagozan ezkerro, aitatu daigun "n-"k aurrean "i" dauanean sortzen dan arazoa: Bizkaian "Diputaziñoa", "Gipuzkoan "Diputazioa" eta Iparraldean "Diputazionea". Olako itzak asko dira. Zein aukeratu? Euskalki bakoitxak berea erabilli dagiala eta ondo be ondo ulertzen dogu alkar. Orduan Bizkaian "Diputaziñoa" (Egia da orde-nagaillu batzuk "ñ" oneagaz izaten dabezela).

Olazar'tar Martin'ek

IZKUNTZA ETA GIZARTEA

Gizon/emakumeak, arrokariak menperatuta geratzen asi ziranetik, bizitzako lenengo denboretan utzirik asita, egiten asi ziran gaur daukien altxorra arrazoizko esku-arteke tresneri guztia, eta arlo bakoitza euki bear dauan berezitasuna edo nortasuna, galtzen dabe gizon/emakumearen naaztutasunezkoen neurrian. Eta berau ziurtatze-ko begitu daigun gizon/emakumeak daukien tresnarik ederrena euren bizitzarako "IZKUNTZA".

IZKUNTZA: gizarteak daukan balio aundienetako tresnea izkuntza da, eta bera da gizarteak indarrak aundienagaz babestuten dauana, aldearantziz izkuntzak eurak babesten dabelako, arrazoiak neurritzekoak izan daitezcan Ludi onen lur gainean.

Baiña gizartearen izkuntza, oso gogai edo gogamen zabala da, orregaitik beren leiñu neurritara croan bear dogu.

Leenengo denboretatik banandu gintzazan, baiña a ta guzti be erriak egin ziran eta onek be naikoa ez ziran lez curen babeserako eskualdetik aberriak, sortu ziran, ekonomia bat, erlejiño bat, izkuntza bat, lan-era bat eta oitura bat gizarte orren sinismenetik lortu ebelako.

Baliteke, giza semea leenengoetatik artoa izateagaitik, gizartearen kalte guztien iturria bera izatea, arrotasunezko bizitza lortzeko, inguruan dagozenak menperatuta egon bear diralako.

Eta orrek esan nai dauana, arro orren edo erri-arro orren bizitzan ibili dan ezberdinezko lekuetatik artu dabezan berezitasunak ezberdiñak dirala: izkuntzan itz ezberdiñak izendatu debezelako; erlijioan be bai; tokiaren berezitasunagaitik beren berezitasuna; orregaitik oituraren berezitasunak ezberdiñak dira aberri artean, eta arrotasunaren menpean dagozan lez, curen aberriaren erritar-tean menperatasuna lortuta, beste erri batzuen menperatasuna gure dabela; adibidez: erromatarrek Europa menperatzen asi orduko, Europaren sarkaldeko edo mendebaleko erdi guztia Euskalduna izan zan, orregaitik geratzen dira euskerazko itzak erreka, mendi, eta errietan, lur guztian (cromagñon).

Erromatarren latiniagaz erritarrak aituteko, naaztetasunezko izkuntz ergel bat sortu zan, iñungo neurritik ez daukana eta zeozer geiago egingo eben ostean agertu ziran leiñu germanoindoeuropearrak ere, azkenean gogoak ugazaba lez geratuta; baiña or daukie zaldar aundi bat gizaldi askotan ezin izan dabena menperatu, orregaitik geratzen da Euskera akats orreik neurrian sartzeko eta gizartearen bizitza zuzentasunera eroateko, okerrak

zuzendu gura ba dira, gure egikerak bakez eta JAINKOA'ren ardurapean iraun dagien.

Baten batek esan dau... "UNA IMAGEN VALE POR MIL PALABRAS".

Zergaitik esango dabe ori...?

Daukien izkuntzak ez daualako mugatzen gauzeari emongura jakon ezaugarria ezaunak izan daitezcan...?

Or!! non agertzen dan menperatzaillearen okerreko ekintza, "ESTOCADA" itz-erroz ez daualako esaten ezertxo be, eta Gaztelarrak orregaitik joan bear dabe irudia begitzera jakiteko zer dan. Baiña "AIZTOKADA" esaten badautsagu ez dogu bear irudirik, gure buruetan, itzak iruditu egiten daualako AIZTOKADA'ren ezaugarria.

Bardin sortzen da astearteko egunakaz: "LUNES", nungo irudrra joan bear zara ikusten jakiteko astearen leenengo egunagaitik gaudela berbetan? Baiña "ASTELEENA" esaten badogu, badakigu astearen leenengo eguna gaitik gagozela berbetan iñungo irudirik ikusi bear barik.

Menendez Pidal'eri 1962 edo 63'an eguerdi baten irratitik entzun neutson, Gaztelera'ri 1971 Euskerazko itz sartu bear jakozala Gaztelera oiñarritzeko.

Orrek esan gura dauana, menperatzaitasunezko indarrakaz beartzen dana, oker geiagoan sartzen dala. Kalte aundiena giza'ren ARIMETAN eginda, arbasoengandik datorren jakitasuna gure erreztasunerako naiztu egiten dalako, gauzak gero ta okerrago egiñaz, gaur sortzen dan lez.

Berezitasunera joan bear dogu Nortasunak zendotzeko zeaztasunean, eta orretarako ez da bear "ESPERANTO"rik giroa geiago okertu daiten, oster a be atzean daukaguzan astarnari begitu baiño gure barriak zuzentzeko. **OR EUSKARA!! BEAR DIRAN ZUZENKETAK EGITEKO.**

Orregaitik EUSKALDUNOK ez lorik artu Munduan dagoan gauza ederrenetarik aundi ez daiten galdu. Beste errientzako argitasunaren bidea ez daiten emendatu edo itzaldtu, JAINKOA'ren bideak bereskuratzea gura ba dogu.

**ATUTXA'tar Paul
ZORNOTZA'n 2002'an BAGILLA'ren 3'an**

FELIX LAUZIRIKA LONGARAI

Zortzi urteko mutil bardingoa zala, Maria Teresa Goikoetxea pianojoleagaz solfeo zein piano jotzen ikasten ari zan. Gero, Dionisio Rodriguez eta Arturo Intxaustiren eskutik armonia ikasi jen. Gaur egun, Bakioko Andra Mari eleizako organujole jator dogu. Bakioko guztiontzako, bada, gure Felixtxu.

ZER: Nozik Bakioko organujole?

FL: Gure gurasoak bakiotarrak izan arren, txikitan Bilbon bizi gintzazan. Bakiora biurtu gintzazanean, Glori Etxebarrieta zan Bakioko organujolea. Gaixotu egin zan bein baten eta On Juan Maria Markaida Bakioko parroko jauna, etorri jatan etxera erreguka eta esateko, nik izan bear nebala aren ordezkoa. Baietza emon neutson eta ordurik emen nozue domeketako mezetan zein bestelango eleizkizunetan zaratotsa ataraten.

ZER: Egon da beti organujolerik Bakion?

FL: Nik batzuk, beintzat, ezagutu dodaz: Paulino Uriarte maisua, Martin Alkorta, Martin Bilbao (Martintxu Egia) eta Glori Etxebarrieta, nire aurrekoa.

ZER: Euskalerrria Erri musikazale izanda, egon da organujole onik gure artean?

FL: Izango ez da ba! Bai orixe! Oraintxe, bat-batean, izenok jatoridaz burura: Victor Zubizarreta, Arturo Intxausti, Azkue, eta abar... Bakion bertan be badoguz Paskual Barturen, Alex Larrazabal eta Yolanda Pérez.

ZER: Ze eritxi dozu Paskualen ganean?

FL: Zer esango deutsut ba?, lagun dot-eta. Paskual musikari eta musika-egile da. Ez onena, bearbada, baina bai onenatarikoa. Paskualek rrusika-lan ederrak egin ditu: "Euskal Meza" eta Bakiiori, beraren erriari, idatzitako "Ereserkia", eta abar...

Alex Larrazabalek 22 urte baino ez daukaz eta ganora ederra agertu dau mutil gazte orrek.

ZER: Belarri txarreko abadeak be ezagutuko zenuz, ezta?

FL: Irribarreka diraustazu. Ezin izenik esan baina, oraindinokarren bizi da-eta. Beinola, abade bat dala-eta, auxe jazo jatan. Aste Santuko eleizkizunak ziran eta mezak euskeraz esaten asi ziran ezkeron, abesti barriak

ikasi bear zirala eta, aaleginak eta bi egin ostean, auxe esan eustan: "kendu eistazu begi aurretik musika zati ori, naastau egiten nau-eta".

ZER: Infernuko auspoa be jotzen ei zenduala entzun dogu.

FL: Badakit nondik nora zoazan. EGIA tabernea da orren lekuko. Samea busti eta begiak batuten asten jakuzanean, auzoko taberna atan, Modesto Ansorregi panderojoleak (Otsategitxukoa) eta biok egundokoak egiten genduzan. Modestoren ileta eleizkizunetan, begiak negararren negarrez bustita neukazala, areri agur egiteko, arinarinak jo neutsozan.

ZER: Organu barria, zer?

FL: Zer esan bear deutsut, ba? Pitxi polit-polita dala.

ZER: Zelan ikusten dozu Bakio musika arloan?

FL: Bakion abesbatza ederra dogu. 20 bat urte daukaz berak. Azken urteotan, barriz, entzute andia artu dau. Bizkai osoan ezaguna da eta atzerrian be ibilia. Esaterako, igaz Pariseko Versallesen 8 egun egin jeezan abestuten. Kimuak be egin ditu. Etorkizunari be begiratu bear jakola-eta, umeen abesbatzeak 5 urte egin ditu daborduko. Begoña Abio zuzendariaren eritxiz, abesbatza bizi-bizia da.

ZER: Andikeriaren bat be entzun bear ete dodan nago.

FL: Bai, eta zer au entzungo zenuan, bearbada. Ez dala izango Euskalerrri osoan, ain erri txiki izanda, beste erririk abesbatza obarik daukanik. Jakin gura neuke non, balego.

ZER: Auxe izan dozue gure Felixtxu, Bakioko Andra Mariko organujolea, jaseko mutila, alai eta zintzoa. Ba ete dago berarentzako moduko neskarik? Agur Felixtxu, zeure ezkontza egunerako beste organujoleren bat topauko dogu. Musika barik ez zara lotuko eta.

Jon Aingeru GOIKOETXEA



ALDI ZKARI ONEK
BI ZKAI 'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

Berbalapikoa (B.b.= Bakioko berbea)

mutil bardingo= mutil koskor. (B.b)

jen(dxen)= eban. (B.b)

bat-batean= atonan, berberton.

ganora= trebetasun.

diraustazu= dinostazu.

jazo= pasau, gertau.

lekuko= testigu.

pitxi= balio andiko gauzea.

jeezan (dxiesan)= ebezan. (B.b)

jaseko= trebe, esku oneko. (B.b)

ABIZENAK

ARTETA: Muxikan asi eta Mungialdetik Bizkai guztira zabaldu. (1543) Gipuzkoan be ba-dago eta Naparroan be bai batzuk.

Arte asko dagon lekua edo etxea esan gura dau.

ARTOLA: Amezketak eta Gipuzkoa osoan dago eta Bilbao'n be bai. (1655)

"-ola" atzizkiak ugaritasuna adierazten dau eta abizen onek arte asko dagon tokia edo ondoan dagon etxea esan nai dai. Onen antzera urkiola, egurrola, uriola...

ARZA: Lazkaon sortua da baiña Aiala-aldean be ba-dago. (1600)

Itza "arri" dala, atzizkia "-tza" da eta onek ugaritasuna esan nai dau. Orrelan "Artza" arri asko dagon lekua da. Ba-diño batzuk artza pizti bat dala be. Bear ba-da piztia izan daiteke Aialako "artzá" eta besteak "ártza", arritegia.

ARRAZOLA: Gipuzkoaren ondoan dagon Bizkai'ko erri bat da eta "-ola" ugaritasuna izanik, "arraz" arrilekua izan leiteke. (1340)

ARETXAGA: Lenengo Etxano'n agertzen da baiña gero zabal dabil Euskalerrian. (1399)

Aretxa dagoan tokia edo etxea esan gura dau eta "-aga" ez da besterik mugatzailea sendotzeko baiño.

ARRIAGA: Erronkarin agertzen da eta Bizkaian eta Gipuzkoan zabal dago. (1581)

Arria dagoan tokia esan gura dau.

ARRIEN: Errigoititik urtena da. (1768)

Asierako "arri" zer dan argi dago baiña ez ain argi "-en" zer dan: batzuk sasia dala diño baiña beste batzuk "noren" atzizkia dala. Ni lenengoaren alde nago.

ARRIETA: Berba onen esan-naia argi dago. Erri bat da Bizkaian eta bete eskualde batzuitan be bai. (1548)

Arri asko dagon tokia da.

ARRILLAGA: Abalzasketan asi eta Gipuzkoa osoan agiri da. (1619)

Arri biribillak dagozan lekua esan nai dau.

ARRINDA: Etxanon sortua ei da baiña beste leku askotan agiri da.

"Arri" zer dan argi dago. "-in-" sasia dala diño eta "-da" tokia adierazteko.

ARRIOLA: Debatik Bizkairantza zabaldu da. (Elorrio-1576)

"Arri" beti lez argi dago eta "-ola" atzizki lez agertzen danean ugaritasuna adierazteko da.

ARRIZABALAGA: Azpeitian eta Ataunen dagoz abizen au daukenak. (Eibar-1565)

Berbeak argi dauka esanaia: "-aga" tokia eta "arri" "zabala". Toki orretan dagoan etxea izan leiteke.

ARROITA (Arroeta): "Arro" mendi-muñoa da, "-eta" mendi askoren bitartea.

Berrizko Murgoitia auzotik zabaldua ei da. (Bergara-1650)

ARROLA: Mungian dagoz asko, baiña gipuzkoatik etorria da, artzaiñakaz-edo.

"-ola" ugaritasuna da eta "arri" ezaguna da. Urola ura ugari edo egurrola egurra ugari dan lez, arrola arria ugari da. Ez da burdin-ola. (Legazpia-1533)

ARROSPIDE: Busturin eta Benabarran agertzen da. (1658)

"-arro" emen sasia ei da, "-os-" tokia eta "-bide" ezaguna da. "Sasi asko dagon tokira bidea".

ARROIABE: Arratzutik asi eta Bizkai guztira zabaldu da.

"Arro-" mendi-muñoa izan ezkerro, mendiartearen barreneko tokia litzateke, baiña "arro" sasia ba'da, sasitzaren barrena" izango litzake.

ARRUE: Gipuzkoatik Bizkaira etorria da. (1399) Batzuk "arriune" dala diño baiña ziurrago "arroa", "arrua", "arrue". Mendi-muñoa.

ARRUPE: Mungian dago eta Gipuzkoan.

Arruaren edo mendi-muñoaren barrena esan gura dau.

ANAITASUNAREN IKASPENA

Jaungoikoak berak sorturiko gizadia, iñoz, ez eban itzi bertan bera. Sorleak bere barruan daroa berak sortu ta bizia emon dautsonarenganako maitasuna. arriak, burdiñak ta ikatz-arriak baiño gogor ta sendoagoa. Bibliak dirauskunez, arako arako uriolde nagusiaren ondoren, Noe ta onen lagunei onan berba egin eutsen... Ugaritu zaitze ta menperatu egizue lurra... Lurreko abere guztiak izutu egingo jatzuez. Lur guztia gizonaren menpean jarri eban. Orrez gaiñera esan eutsen... Zeruko egaztiak, lurreko narraziak ta itxasoko arraiñak zuen menpean dagoz eta egitzen diran guztiak janarizat izango dozuez, zueri emoten dautzuedaz baita bedarkiak be. Azi ta ugaritu zaitze ha, ibili lurrean ta nagusi izan zaitze bertan... Neure alkartasuna egiten dot nik zuekin eta geroko ondorengoe-kin.

Egillea Noe ta beragaz batera uriola aldian bizitzaz ta osasunez, ondo, geratu zirenagaz, lagun izan zan. Ta curen pozgarrizat geiago ez ebala alako ondamentirik lurrera botako esan eutsen.

Aldiak joan aldiak etorri urte asko geroago Jaungokoa Abraanen lagun agertu zan... Asiera, 12, 2. Erri aundi egin ta bedeinkatu egingo zaituet... Aundi egingo dot zure izena eta bedeinkapenezko izena izango da zuena... Zure ondorengoetan lurreko erriak bedeinkatuak izango dira, 22, 13.

Jaungoikoak Abraanen seme Isaaki ta onen illoba Israeli itz bardiña emoten dautse. Asiera, 28, 13-15.

Jaungoikoaren eskua agertu bear eban gizonaren alde ta ori dala-ta, Israelen semeak, goseak beartuta, Ejitor joan bear izan eban. Lenengo aldiak sarri izan oi dira atsegingarriak edozein lanetan, Israeldarrak be, lenengoan, aurrerapidea, ogia ta poza asmau zituen euren bizitza barruan, baiña urtien gora-beran, eza ta gorriak ikustera eldu ziran.

Zoritxarpean jausi zan erri onegaz Egillea errukitu egin zan. Aita on batek izan bere, ezin dau semea ondape- nean ikusi, Aitarik onenak zer senditu ete eban bere erria zapalduta ikusirik... Jakituri aundiz ta maitasun onegaz anaitasunezko erri bat sortzea erabagi eban. Notiñaren abnenak bereziak dira buruz ta naimenez. Egille berberaren irudia, ortxe, agertzen da. Jaungoikoak bere irudira sortu ebazan giza seme-alabak. zapalduta bizi izateko ez ebazan sortu. Bere gogo da Jesusen bidez agertu euskunez, aundia izan nai dauana, besteen serbitzaille izan dedilla.

Emagin edo ume jaiotzan laguntzen ibiltzen ziren andrei, agindu au emon eutsen. Israeldar umeen jaiotz ordua eltzen danean, mutilla ba-da il egizue, la neskatillea ha-da, bizirik itzi. Emagiñak Jaungoikoaren bildur ziran ta ez ziran umcrik ilten ausartzen. Ejitotoar agintariek au ikusirik, emagiñei kontuak eskatzen asi ziran. Baiña andra areik zur jokatu eban agintariei erantzunez... Ejitotoarrak lakoak ez dira Israeldarrak.

Onak andra errimeak dira ta emagiñak laguntzera eldu orduko, umea ekarten dabe. Jaungoikoak andra onen jakohaidea bedeinkatu egin eban ta Israel erria ugaritu egin zan, ta baila bere emagiñei ondorengoak emon eutsezan, euren bizitza poz aundiz beterik. Faraon ta bere lagunak au ez eban ondo ikusten ta gitxiago onartzen. Len, larri. ba egozan, orain larriago ikusten eban curen barrua.

UMEAK ONDO EZI EGIZUEZ ETA EZ DOZUE GERO BURU-AUSTERIK IZANGO

PITAGORAS' EK

Faraondarrak, egun baten, euren aginpidea galzorian aurkitu zeitekeala-ta, erri guztiari agindu au emon eutsen... Israeldarren artean mutillik jaioten dala ikuste ba dozue, mutil ori Nilo ibaira bota egizue... Gogorkeriz, ankerkeriz ta eriotzaz nai eban ejitotoarrak Israel erria austu ta birrindu. Ta iñoz itxaropen pizkat sortzen zanean erri onetan, laster, lan geiagogaz estutuko zituen ezertariko astirik izan ez egiten.

Taju tamalgarri orretan bizi ziran Israeldarrak erbestepian. Baiña ez zan obeagoa Israeldarrak curen artean asarretu ta burrukan ibiltea. Bein baten Moisesek ejitotoar bat ikusi eban Israeldar bat josten ta era xarrean tratetan ta anai baten ezbeurrak guztiz minduta, ejitotoarra il egin eban. Urrengo egunean bere anai Israeldar bi ikusi zituan burrukan... Zergaitik josten dozu anai... Ta Israeldarrak bereala erantzun eutsan... Nork jarri zaitu zu nire epaille...

Atzo ejitotoarra il zenduan lez, ni he iltea nai al nozu. Samingaria da, baiña, heti, erbestepian egona be, Israeldarrak curen artean alkarrekin aserreko agertzen ziran. Kanpok etorkioen kurutzeta txikia ba-litza lez, euren artean be guda sortu bear.

Zapaltzailleak, ondo, menperatuta eukan Israelgo erria, geiago ezin esan zeitekean ta miseriak anai bizitzarik egiten izten ez eutsen jende taldea, erri ori eukeratu eban Jaungoikoak, munduan anai bizitza egiten asteko. Israeldak urten bear eban argiak, zuzentasunak, egiak eta bakeak. Ortarako gertatu bear eban Jaungoikoaren erriak.

SOLOZABAL'dar PULIN




kultura

sortzen dogu



kultura



BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Au da gure kultura.

www.bbk.es

200 pezeta (1,20 Euro)

bbk²